



## SAN INAZIO EGUNA SANTA BARBARAN

# Eguzkia eta ambiente ederra emana dago, gaur, Santa Barbara gainerako

Herri kirolean espero da jende gehien, 13:00ak inguruan. Lau beterano eta lau gaztetxo ariko dira, nahastuta. Trikitixa eta bertsoak ere izango dira: Iñaki Zelaia, Eli Pagola eta Antton Garin ariko dira.

ANBIENTE ederra eta eguraldi hobe seguru dira gaur, Santa Barbara gainean. San Inazio eguna eguzkitsua tokatzen da normalean, eta gaur ere halaxe esan dute. Sargoriari aurre egiteko, Santa Barbara gaineko airea ez da gaizki etorriko, eta eztarria frexkatzeko ere leku hoberik apenas izango den gaur.

Komeri gehiago izango dituzte herri kirolean ariko diren zortzi lagunek. Haiek bero-galdatan ari behar; eta zein baino zein gainera. Lau beterano eta lau gaztetxo nahasian jarri dituzte, aizkoran, lokotxetan, korrika eta zerramotorrarekin. Eguerdialdeko 13:00ean hasiko da ikuskizuna.

Bertsolari eta trikitilaririk ez da faltako. Mezatara joango direnak ere badira, eta bazkaltzen geldituko direnak ere bai. Toka, haur jolasak eta erromeria ere badituzte.

**Ohiturazko meza, 12:00etan**  
Goizean mugitu eta oinez igoko dira gaur hernaniarrak Santa Barbarara, eta horietako asko, gainera, meza entzutera joango dira ermitara, urteroko ohitura horixe baita.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, urtero bezala, kotxean igotzeko aukerarik ez da izango Elutxeta sagardotegiko kruzetik gora.

**Beteranoak eta gaztetxoak; denak herritarrak**  
Herri kirolek piztuko dute lehendik berotutako jendea. Zortzi herritar ariko dira, ba-



Urte askotan txingekin aritu dira, baina aurten korrika saioa egingo dute txingen partez.

Goizean trikitixarekin hasi,  
bertsotan segi eta  
12:00etan meza izango da.

tzuk beteranoak eta besteak gaztetxoak; baina denak afizionatuak. Bi talde egingo dituzte: A taldean, Aitor Barrenetxea, Juan Esnal, Axel Larrañaga eta Garikoitz Arizmendi; B taldean, Imanol Paolla, Jon Larrañaga Larra, Aiert Paolla, eta Manex Arizmendi.

Ondo preparatuta etorri badira ere, protagonistei gaur berotuko zaizkie motorrak. Aizkoran eta zerramotorrean zaharrenak ariko dira, eta lokotxetan gazteenak. Korrika, denek egin beharko dute saioa. Guztira 6na kanaerdiko moztu beharko dituzte.

### Arratsaldeko festa

Herri kirolekin ez da festa bukatuko. Bertsozaleek aukera izango dute goizean eta bazkalondan bertsoak aditzeko: Iñaki Zelaia, Eli Pagola eta Antton Garin ariko dira. Trikitilariak ere izaten dira, eta koadrila arteko giroa izaten da orokorrean San Inazioan. Galdu ezinezkoa, bazkal ondoko toka, umeen txokolatada eta erromeria ere. ||

### 10:00 Trikitilariak

**11:30** Bertsolariak: Iñaki Zelaia, Eli Pagola eta Antton Garin  
**12:00** Meza, bertako ermitan  
**13:00** HERRI KIROLAK: Aizkora, lokotxak, korrika eta motozerra.  
**A taldea:** Aitor Barrenetxea, Juan Esnal, Axel Larrañaga, Garikoitz Arizmendi.  
**B taldea:** Imanol Paolla, Jon Larrañaga Larra, Aiert Paolla, Manex Arizmendi.  
**14:00** Herri bazkaria: marmitakoa, txuleta... txartelak: Aralar, Kitto (25 €)  
**16:30** Lagunarteko Toka Txapelketa  
**16:30** Haur joko eta txokolatada  
**17:30** Erromeria  
**19:00** Herrira jaitsiera



**SANTA BARBARA  
JAITEGIA**

Zatoz San Inazio eguna festa giroan pasatzera!  
Ondo pasa San Inazio jaiak!

Santa Barbara, 2 - Tel.: 943 33 13 87



San Inazio eguna dela eta,  
TRIKITIXA izango degu  
Zatoz  
egun eder bat pasatzera.

Tel.: 943 556 481 - 943 554 675

Marrakako-Ribera Baserrira  
Sta Barbara auzoa 92

**HERNANI ENGLISH  
HIZKUNTZAK**  
(GURE INGELESETXEA)

Zorionak Cambridge azterketak gainditzeagatik:

-Ane E. Advanced (Europako C1) (%73)	-Mikel G. First (B2)
-Leire G. Advanced (C1)	-Iwan G. First (B2)
-Oier G. First (Europako B2) eta EOI (B2)	-Eva B. First (B2)
-Mialen D de C. First (B2)	-Mikel Vergara First (B2)
	-Asier E (F) PET (B1) (%88)

**BERRIZ ERE, GUZTIOK GAINDITU DUTE.**

Aurre-matrikula egiteko, utzi zure telefono zenbakia gure kontestadore automatikoan: 943 331108.  
2013-2014ko matrikula: irailaren 2-a. Ikastaro berria: urriaren 1-a.

Deitu (Alan edo Joe) **943 33 11 08** Kale Nagusia 41 - I

☎ TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK ● **Egunez:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguzkiak errukirik gabe berotuko ditu gaur bazterrak. Hegoekialdetik joko du haizeak, eta horrek labea sortuko du gurean. Oskarbi. Min.18° / Max.31°

**BIHAR** Bihar oraindik eta bero handiagoa egingo du. Eguzkiak nagusi goietan eta hego haizea. Arratsaldean ipar ikutua hartu lezake, eta horrek hoztuko du pixkat. Min.19° / Max.32° (euskaime)



## AHTaren kontrako protesta Errekaldetik etorri eta Astigarragara joan zen.

Bizikletaz etorri ziren Hernanira, eta Plaza Berrin hainbat lagun zai zituzten. AHTren kontrako bizikleta martxako kideek protesta ekitaldia zuten atzo ere. Uztailaren 25etik abuztuaren 1era bizikleta martxa egiten ari dira, Altsasutik Donostiara, eta atzo Hernanira iritsi ziren, Errekaldetik. Hernanin ikusi zituzten AHTko obrak, Osiñagako parean, eta handik Astigarragara joan ziren. Hernaniarrei banatu zizkieten orrietan gogor salatzen dute AHTa. «Konponbidea da AHTa eta azpiegitura lan handiak gelditu, bizi dugun eredu kapitalista auzitan jarri, eta ekonomia eta gizartearen ardatz gisa herria jartzea... Krisi egoera honetan 10.000 miloi euro xahutzea guztiz ulertezina da».



**Paul, Arizeta eta Polaina onenak, Kale Hezitzaileek antolatutako 3x3 futbol txapelketan.** Emozio gehiago ezin izan zuten bizitu Bidebieta plazako futbol zelai txikira inguratu zirenek. Finalean 8-8 berdindu eta penaltietan irabazi zuten Paulek, Arizetak eta Polainak. Aurrean zituzten Guti, Oier eta Alvaro. Guztira 12 hirukote elkartu ziren uztailaren 17an, Kale Hezitzaileek antolatuta, eta sekulako festa jarri zuten, 3x3 futbol txapelketa azkarrarekin. 11-14 urte bitarteko umeek parte hartu zuten, eta intxada eta guztirekin joan ziren gainera gehienak. Kale Hezitzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartzaile guztiei. ||



## ◆ ERREMONTA

### Urtasun Donostian izango da ostegunean, Kutxa Sariko aurkezpenean, onenen artean

Gorka Urtasunek irabazi egin zuen atzo Kutxa Sariko prebiako azken partidua, eta Kutxa Sari handia jokatu du abuztuaren. Hain justu, bihar bertan aurkeztuko dute Banakako Txapelketa Nagusia izaten dena Donostian, Kutxako Prentsa Aretoan. Urtasunek erraz irabazi zion Ioni, 30-14. Denek zuten nafarra favorito, eta katedra gustora uzteko moduan jokatu zuen Iruritako aurrelariak. Kutxa Sariko Prebia oso luzea izan da, eta Juaristi eta Urtasunek lortu dute pasea, Kutxa Saria jokatzeko. Sei erremontista ariko dira zein baino zein, abuztuaren zehar: Juaristi, Urtasun, San Miguel, Ezkurra, Zeberio Ila, eta Urriza. ||

## ◆ HERRI BARRUKO AUTOBUSA

### Abuztuaren, ordutegi berezia

Hernaniko Hiribusak edo herri barruko autobusak ordutegi berezia izango du abuztuaren 1etik aurrera, irailera bitartean. Hauxe da ordutegi berria: 1go autobusa: Elkanotik 10:30etan abiatu, eta Zikuñaga, Etxeberri eta berriz Elcano (10:55). 2garren autobusa: Elkanotik 12:55etan abiatu, eta Zikuñaga, Etxeberri eta berriz Elkanon bukatu (12:55). ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## BEATRIZ BRUNNER

Leitzane baserrikoa  
 Uztailaren 17an hil zen

Zure auzokoek  
 beti izango zaitugu gogoan

Hernanin, 2013ko uztailaren 31n

## ◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Mauer piano bertikala salgai. Beltza, 3 pedalekin, ia erabili gabea. Deitu: 652 762 305  
 Akordeoia salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,....: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)